

LANDARE PARADISUA

Donibane Lohizuneko landare baratze botanikoa, Euskal Herriko itsasertzaren ispilu

📁 **INGURUMENA** / Haritz Larrañaga

Donibane Lohizuneko landare baratze botanikoa, Erromardiko hondartzaren labarren gainean, joan den martxoaren 20tik irekita dago. Itsasbazterrean dagoen bi hektareako lursail horrek mila espezie inguru biltzen ditu, bizikide diren bi multzo handitan: mundu osoko landareak eta Euskal Herriko kostaldeko landareak.

Udaberriaren hasierarekin batera ireki zuten ateak Donibane Lohizuneko landare baratze botanikoak, martxoaren 20an. Itsasbazterreko bi hektareako lursaila Erromardiko hondartzaren labarren gainean dago eta mila espezie inguru biltzen ditu, bi-

zikide diren bi multzo handitan: mundu osoko landareak eta Euskal Herriko kostaldeko landareak. Lau langilek banatzen dituzte egitekoak, laurak botanikariak dira, baina ez dira landareen izen eta izateak aurkeztera mugatzen; horrez gain, «baratze-zaintzan, harreran, animazioak antolatzen eta bestelako misioak egiten», aritzen direla azaldu

Uztailean eta abuztuan egunero irekitzen dituzte ateak Donibane Lohizuneko landare baratzeak. Martxotik ekainera eta irailetik azarora, aldiz, asteazken, larunbat, igande eta jaiegunetan.
Guillaume FAUVEAU

du Jon Sudupek, «adibidez, inguruko ikastetxeekin elkarlanean aritzen gara konposta egiten, baratzeak lantzen edo kontzientziazio lana egiten; ‘Eko-eskola’ sustatzen dugu».

Duela 20 urte hasi ziren landaketak egiten, baina hala eta guztiz ere, oraindik «oihantxo gaztea» dela dio Donibane Lohizune eta Ziburu artean jaio, hazi eta bizi den botanikariak; izan ere, badira landare baratzean bizi luzea duten zuhaitzak oraindik hazten ari direnak. Eta guztiak txukun izendatuak eta haien ezaugarri nagusiekin aurkeztuak.

BISITAK ETA BISITARIAK

Urtean 1.700 ikasle inguru gerturatzen dira Donibane Lohizuneko landare baratzerara, nahiz eta egun osasun neurriengatik hori ezinezkoa den.



Bestelako bisitariei dagokie-
nez, iaz marka guztiak hautsi
zituzten uda sasoian. «Ekaina-
ren 6an ireki genituen ateak
eta azaroa bitartean 10.000 bi-
sitari baino gehiago izan zi-
ren», oroitzen du Sudupek.

Martxotik ekainera eta iraile-
tik azarora asteazken, larunbat,
igande eta jaiegunetan ireki-
tzen dute landare baratzea, eta
horrez gain bisita gidatuak ere
egin daitezke. Uda sasoian, os-
tera, egunero irekitzen dute uz-
tailean eta abuztuan, goizeko
hamaiketatik arratsaldeko zaz-
piak arte.

Haurrak doan sar daitezke,
baina helduek 4 euro ordaindu
behar dute. Bisita gidatuak eus-
karaz edo frantsesez egin dai-
tezke, aurrez hitzordua hartuz
gero. Horrez gain, urtean zehar
hitzaldiak eta tailerrak ere an-
tolatzen dituzte hainbat gai
lantzeko.

Lan guztiak garrantzitsuak
direla azpimarratu du Sudu-
pek, baina aitortzen du gu-
txien maite duena bisitariekin
lan egitea dela, zehatzago tu-
ristekin, zeren «kontsumo
moldea da». Berak nahiago du
gehiago sakontzeko aukera
ematen duen moldean lan
egin, adibidez, ikasleekin.

LANDAREA ETA BERE INGURUNEA

Donibane Lohizuneko gun-
e botanikoa ez da hertsiki bot-
anikoa, hau da, bertan ez dira
soilik landare baten izena eta
ezaugarriak adierazten. Flora
eta faunaren ateko lotura egi-
teari garrantzi handia ematen
diote, izan ere, bertako botani-
karien aburuz «landarea bera
baino garrantzitsuagoa da in-
gurunea». Horregatik, oharta-
razi du Sudupek, «ez da parke
bat edo zoo bat».

Landare baratze botanikoa-
ren helburu nagusia publikoari
landareen mundua ezagutzera

ematea izan ohi da, baina Doni-
bane Lohizuneko botanikarie-
k harago joan nahi dute, zeren
botanika biodibertsitateari ate-
ak irekitzeko bitarteko izan dai-
teke. Suduperen hitzetan, «sar-
tzeko gako bat da, hortik hasita
gauza anitz aipa daitezke, adi-
bidez, animalien eta landareen
arteko loturak, lotura hertsia-
k dira, polinizatzea aipa daiteke,
edo beste hainbat gauza, baina
azkenean ingurumenari lotuak
diren gai guztiak aipatzen ditu-
gu, bai bisitetan eta bai gai des-
berdinen inguruko tailer eta hi-
tzaldietan».

Sudupek zehaztu duenez, «ga-
rai batean espezieak babesteari
ematen zitzaion garrantzia
gehien, baina egun espazioa ere
kontuan hartzen da, bere osota-
sunean». Zentzu horretan, hel-
buru pedagogikoa dute, jendea-
ri lotura hori azaldu eta
biodibertsitatea ulertzeko ikus-
pegi integral bat eskaintzeko.



Jon Sudupe, landare baratzearen gaineko azalpenak ematen. Guillaume FAUVEAU

Teknikak azaltzeko orduan
ere adibidea eman behar da eta
horregatik ez dute inoiz pesti-
zidarik erabiltzen, produktu
naturalekin egiten dute lan eta
teknika jasangarriak erabili eta
irakasten dizkiete bezeroei.
Horrez gain, aholkularitza lana
ere egiten dute Donibane Lohi-
zunen, haien bezeroei alterna-
tibak eskaintzen.

Honela azaldu du Sudupek
zein irizpideren arabera ahol-
katzen duten: «Nik hemen pal-
mera bat nahi dut, baina agian
ez da leku egokia, loreontzi bat
bezala edo koadro bat bezala
geratuko da hor, baina gure us-
tez testuinguru osoa hartu be-
har da kontuan. Beraz, galdera
nagusia ez da eremu batean
zer jarri nahi den, baizik eta
eremu horretan zer jar daiteke-
en».

Mehatxuak zeintzuk diren
ere azaltzen dute. Adibidez, es-
pezie exotiko asko inbaditzai-

leak dira; beraz, haien orde-
z zer espezie jar edo zerekin or-
dezka daitekeen aholkatzen
dute, baina aholkuak ere alda
daitezke, informazio etengabe
eguneratu behar baita. «Bota-
nika zientzia bizia da, beti ba-
dira gauza berriak, kontuan
izan munduko landareen %15
oraindik deskubritzeko daude-
la», hausnartzen du Donibane
Lohizuneko botanikariak.

KONTINENTEAK ETA EUSKAL KOSTALDEA

Donibane Lohizuneko landare
baratzearen ezaugarri nagusia
bere kokapena da. Kostaldeko
labarretan, itsasoari begira eta
itsasoaren eraginpean dago,
baldintza bereziekin, «beraz,
nola ez ditugu aurkeztuko hor-
ko landareak, halako leku bere-
zian izanda?», galdetzen du Su-
dupek, eta zera zehaztu du,
«kostaldea esaten dugunean
lehen mendi lerroak hasten di-
ren eremua bitarteko espazio-
az ari gara».

Guztira hamazazpi eremuk
osatzen dute landare baratze
botanikoa. Eremu horietako
bakoitzak bere ezaugarriak di-
tu, baina bisitariak nabaritu-
ko duenez, euskal kostaldeko lan-
dare autoktonoak eta kanpotik
heldu direnak elkarren ondoan
bizi daitezke. Adibidez, Euskal
Herriko itsasertzean Asiako
landare ugari dago, «klima be-
rezia dugulako, hezea eta epe-
la, beste kontinenteetako lan-
dareak erraz moldatzen dira
gure ingurunera», argitu du
Sudupek.

Bost kontinenteetako landa-
reak eta zuhaitzak biltzen diren
eremuan kanpotik heldu diren
landareak gurean nola egokitu
diren ikus daiteke; izan ere, oi-
narrizko landarea eta handik
eratorritakoa ondoan jartzen
dituzte bereizketa egin ahal iza-
teko. Horrela, erraz ikusten da
desberdintasuna, zeren batzue-



tan ikus daitekeen moduan, landare berdina izan arren kolore guztiz desberdina izan dezakete; adibidez, zuhaitz batek hosto berdeak ditu eta besteak hosto gorriak.

Etnobotanikako eremuan gizakiak landare bakoitza zertarako erabiltzen duen azaltzen da; badira tindatzeko landareak, jatekoak, sendabelarrak, lur rin landareak, eta abar, baina bada Donibane Lohizunerekin lotura zuzena duen atal bat. Gizakiak zer landare edo zuhaitz erabiltzen dituen eta zertarako erabiltzen dituen azaltzen dute, eta besteak beste, sasiakaziarekin ontziak nola egiten ziren azaltzen dute.

Donibane Lohizunen asmatu zuten sasiakazia lantzeko teknika. «Zura zurruna izanik, bigundu eta forma eman ahal izateko teknika berezi bat asmatu zuten, lurrunaren bitartez bilakatzen zuten zura malguagoa eta horrela eraikitzen

zituzten ontziak», esplikatu du Sudupek.

Bertako landareek animalia gehiago erakartzen dituztela ere ikus daiteke. Esate baterako, Euskal Herriko landareekin zein kanpokoekin egindako hesiak eraiki dituzten eremuan egiaztatu ahal izan dutenez, bertako landareekin egindako hesien inguruan animalia espezie gehiago biltzen da kanpotik iritsitako landare espezieetan baino.

KONTRASTEAK ETA PARADOXAK

«Eremu bat sortu eta animaliak beraiek bakarrik iristen dira», nabarmendu du Sudupek. Donibane Lohizuneko landare baratze botanikoak badu «artifiziala» den eremu bat. Eremu hori hezegune bat da, ur putzu bat, bizia, mekanikoki mugimenduan mantentzen dena. Ordea, han diren apoak, igelak edo hamabi sorgin-orratz espezieak beren kabuz iritsi ziren

hezegunera, ez zituen inork ekarri, eta fauna bere kasa sortu zen.

Euskal kostaldean ez da ohikoa halako hezeguneak izatea, baina botanikariei interesgarria iruditu zitzaaien hezegune bat sortzea, zeren European azken mende erdian hezeguneen %50 desagertu egin dira. Suduperen aburuz, «ingurunea sortu eta fauna bakarrik sortzen da».

Hezegunearen ondoan, mortua dago. Izugarritzko kontrastea egiten dute bi eremuak, baina inguruneko logikarekin

«Ez da parke bat edo zoo bat», ingurunea landarea bera baino garrantzitsuagoa baita. Guillaume FAUVEAU

Badira landare baratzean bizi luzea duten zuhaitzak, oraindik hazten ari direnak. Eta guztiak txukun izendatuak eta haien ezaugarri nagusiekin aurkeztuak

Hamazazpi eremuk osatuta, haietako bakoitzak bere ezaugarriak ditu, baina euskal kostaldeko landare autoktonoak eta kanpotik heldu direnak elkarren ondoan bizi daitezke

ere bat egiten dute, kontrasteak baitira Donibane Lohizuneko landare baratzearen beste ezaugarri nagusietako bat. Kontrasteak eta horiei lotuta datozen paradoxak.

Esate baterako, basamortuko paisaia harea eta harri artean dauden landareak ez dira handiak, kaktusak kasu, baina dunetan sortzen diren landare finen so egiten badiegu, azpian hiru metroko sakonera dutela ohartuko gara, haietako askok sustrai luzeak baitituzte.

Paradoxikoki, ahulenak diruditen landareek, sarri sustrai indartsuak dituzte. Alegia, Donibane Lohizuneko landare baratze botanikoa bezala, lehen begiradan txikia dirudi, baina gerturatu ahala sustrai sendoak ditu, bada ikusteko anitz, informazio anitz, usain anitz eta, batez ere, kontraste anitz.

Kontraste eta paradoxa anitz batzen dituen beste eremu bat aipatzearren, «labirinto botanikoa» aipa daiteke. Hertsiki botanikari lotutako eremu bakarra da, landare guztiak elkarrekin dira, oso ongi izendatuak. Gertutasun horren ondorioz eremu oso txiki batean ehunka kolore eta askotariko usain biltzen dira. Bisitariak, gertura begiratu eta zentzuak adi izan behar dituen eremua da.

Begirada luzera edo laburre-ra, aldiro zerbait desberdina topa daitekeen leku horietako bat da Donibaneko landare baratze botanikoa. Naturak eskaintzen duen kaos itxurari eutsiz, baina ahal den moduan apur bat ordenatuaz, euskal kostaldeko landarediaren ispilu kontzentratua da. Leku zoragarri hau erakutsi digun Jon Sudupe botanikariak dioen bezala, «interesgarria da ingurune natural desberdinak izatea, ingurune mosaikoa da, bioaniztasuna ordezkatzen duena».